


7 AIZARNAZABAL ZUMAIA



PR-Gi 141
Aizarnazabal - Zumaia
 7,4 km - 2 h

- 0 0 m > Aizarnazabal
- 1 2.300 m > Etxabe auzoa
- 2 3.980 m > Gaungo gaina
(Oikia - Ibañarrieta bidea / camino Oikia - Ibañarrieta)
- 3 4.590 m > Oikia
- 4 5.180 m > Mantzisor zubia / Puente Mantzisor
- 5 5.550 m > Arteaga baserria / Caserio Arteaga
- 6 6.580 m > Karakas baserria / Caserio Karakas
- 7 7.400 m > Zumaia (Zuloaga etxea / Casa Zuloaga)



Urola ibaiaren azken zatian, Urola itsasoratu aurretik inguratzeko duen bidean, gustura eta erraz pasea gaitzke. Deskribatu ditugun ibilbide guztietan errazena da, haur txikiak dituzten familiek ere egin dezakete, eta oso egokia da ia ahaztu ere egin dugun baserri giro atsegina gozatu eta baloratzeko.

Gure aholkua da ibilbidea Aizarnazabaldik Zumaiarantz egitea; Aizarnazabal herri txiki eta lasaia da, eta bidea elizatik mendebalderantz abiatzen da. Zumaiatik abiatu gero, berriz, bidea Zuloagaren etxetik hurbil hasten da, errepidearen beste aldean; bertan dago hasiera-marka. Ibilbidearen zati handiena Urolako erriberako baratze emankorren alboan igarotzen da, uretatik asko urrundu gabe. Merez du lasai ibiltzea, paisaiak eta naturaz gozatea, baita naturak eskaintzen dizkigun bizipen guztiez ere. Urteko edozein aro da ona ibilbidea egiteko baina, zalantzarik gabe, udaberriaren hasiera (sagarondoak loratzen diren garaia) eta udazkenaren hasiera (uzta emankorra biltzen den garaia) dira proposenak.

El sendero que acompaña al recorrido final del Urola antes de su salida al mar nos permite realizar un agradable y fácil paseo, el menos exigente de los aquí planteados, ideal para las familias con niños pequeños, y muy adecuado para valorar y disfrutar de un plácido ambiente rural que ya casi hemos olvidado. Recomendamos hacer el recorrido partiendo desde el pequeño y tranquilo pueblo de Aizarnazabal en dirección hacia Zumaia, siguiendo por el camino que parte frente a la iglesia hacia el oeste. En caso de salir de Zumaia el camino se inicia cerca de la casa de Zuloaga, al otro lado de la carretera, lugar donde se sitúa la señal de inicio. Durante la mayor parte del itinerario discurriremos junto a fértiles huertas por la ribera del Urola y sin alejarnos mucho de sus aguas. Merece la pena hacer la travesía sin prisas, disfrutando del paisaje y de la observación de la naturaleza, y de todas las sensaciones que ésta nos regala. Cualquier época del año es buena para hacer la caminata, pero sin duda el principio de la primavera, que nos ofrece la floración de los manzanos, y el principio del otoño, que nos brinda una fértil cosecha, son el momento ideal.



Aizarnazabalko sagarrondoak – Manzanos de Aizarnazabal



Uzta-bilketa – cosecha

Paseoan barrena, gizakiak duela zenbait mendez geroztik inguru oso emankor bilakatu duen erribera lurra zeharkatzen da. Izan ere, XVII. mendearen amaieratik aurrera, padurak intentsiboki lehortu ziren eta, hartara, ihitzak landu ziren. Horri esker, nekazaritza-ekoizpena handitu egin zen, batez ere, Ameriketatik ekarritako labore berriena, hala nola, artoarena. Gaur egun, berriz, baratzeak eta fruta-sailak daude lur hauetan, eta sagarrak eta kiwiak dira nagusi.

Gaztainondoak, gereziandoak eta beste fruta-arbola batzuk ere badaude, eta baita berotegietan lantzen diren barazkiak ere; ekoizpen-forma hori gora egiten ari da pixkana-pixkana.

En el paseo recorreremos una llanura aluvial que la mano del hombre ha venido transformando desde hace siglos para hacer de ella una zona muy productiva. Es a partir del final del siglo XVII cuando se comienzan a desecar de forma intensiva las marismas, lo que posibilita el cultivo de los antiguos juncales. Gracias a ello se consiguió el aumento de la producción agrícola, y especialmente de nuevos cultivos traídos de América como el maíz. Actualmente, tanto huertas como plantaciones de frutales ocupan estos terrenos, y entre estas dominan los manzanos y kiwis. También veremos algunos castaños, cerezos y otros frutales, a la vez que observaremos el cultivo de hortalizas en invernadero, un modo de producción que aumenta paulatinamente.



Zumaia - Amezmeni



Artoa - Maiz



Kiwi fruituak - Kiwis



Kiwi landarea - Planta de kiwi

Aizarnazabaldik atera eta lehenengo meandroa pasatu ondoren, arretakin ibili behar gara bidegurutzeetan –Etxabe auzoan dago lehenengoa-, ibilbideari zuzen jarraitzeko. Aurrerago, Oikian, Urola ibaia Mantzísidor zubiaren gainetik zeharkatu behar da eta, aldapa igo ondoren, Arteaga baserriaren parean, Karakas landexerantz jo. Hartara, Santiago hondartzatik eta Zuloaga museotik hurbil egongo gara, eta Zumaia oso gertu.

Tras salir de Aizarnazabal y después del primer meandro, deberemos prestar atención a los cruces de caminos, en primer lugar en el barrio de Etxabe, y poder así proseguir correctamente por nuestro itinerario. Más adelante, en Oikia, cruzaremos el Urola por el puente de Mantzísidor, y ya una vez ascendido el repecho, a la altura del caserío Arteaga, dirigiremos hacia el agroturismo Karakas. Así, llegaremos hasta las proximidades de la playa de Santiago y el museo de Zuloaga, a un paso del centro de Zumaia.

Urola ibaia eta bere bokalea El Urola y su desembocadura

Urola ibaia Aizkorri mendian jaio eta Zumaian itsasoratzen da, 50 kilometro baino gehiago egin ondoren. Ibai ingurua eskualde guztiko historiaren protagonista izan da: batetik, erriberan ontziak eraikitzearen, errota eta burdinola ugarien eta nekazaritzaren ondorioz, jarduna ibaiaren inguruko izan da mendeetan; bestetik, Urolaren Zumaia bokalearen alboan, oso historia geologiko bereziko kostaldea dago.

Milioika urteko aldiaren oroigarria da, itsasoak azaleratu dituen *flysch* izeneko geruzetan antzematen dena.

Nabarmentzekoa da 65 milioi urtekoztat jotzen dena (Zumaian argi eta garbi ikusten da), Lurra jo zuen hondamendi bati buruzko sekretuen berri ematen baitu: meteorito handi baten talka eta espezie ugariaren desagertzea, Lurreko biziaren historian izandako bosgarren suntsipena.

El río Urola, que nace en la Sierra del Aitzgorri, se funde en Zumaia con el mar tras más de 50 km de recorrido. Su entorno ha sido protagonista de la historia de toda la zona. Por un lado, la construcción de barcos en las riberas del río, los numerosos molinos y ferrerías y la agricultura han hecho que durante siglos la actividad haya girado en torno a este curso fluvial. Junto a la desembocadura del Urola en Zumaia se abre una costa con una historia geológica muy particular. En ella se guarda la memoria de un periodo de millones de años, claramente visible en las capas de *flysch* que el mar ha dejado al descubierto. Entre ellas destaca una datada en 65 millones de años –fácilmente observable en Zumaia-, y que atesora los secretos de una gran catástrofe que se cernió sobre la tierra: el impacto de un gran meteorito y la desaparición de un gran número de especies, la quinta gran extinción en la historia de la vida en la Tierra.

